


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 21a / 701. zenbakia



ORAIN ETA HEMEN: KIROL INSTALAZIO BERRIAK/7 • KULTURA: 'LA NONA' ANTZEZLANA/10

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 22**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 23**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 24**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 25**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 26**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUENA, 27**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 28**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenerik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelehenerik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
Txanda hartzeko:
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
Especialitateak 943 03 53 11
Ikuskatzailea 943 03 52 52
Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

- MEZAK**
- San Juan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (elebiduna)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andrés eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 meza nagusia (elebiduna)
19:00 (elebiduna)
- Santa Marinako eliza**
Zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (gaztelaniaz)
- San Isidro eliza**
Zapatua
20:00 (euskaraz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Domeka
12:30 (elebiduna)

OHARRAK

- BIZIGUNE PROGRAMA**
Gaur, egubakoitza, etxe hutsak mobilizatzeko Bizigune programa aditzera emango dute Seber Altube plazan, 16:00etatik 20:00etara bitartean.
- SANTA AGEDA KORUAK**
Santa Ageda koruetako kantari, poltsero eta laguntzaileei deia egiten diete otsailaren 2an Karkabal elkarte bat egin dezaten. Hitzordua 21:00etan izango da, eta boluntarioak behar dituzte zeregin horietarako.

- EMAKUME TXOKOA**
Emakume Txokoak hainbat berbaldi, lehiaketa eta ikastaro antolatu ditu datozen asteetarako. Interesatuak jo Uarkape atzeko egoitzara astelehenerik egubakoitzera 16:00etatik 20:00etara bitartean, edo deitu 943 79 41 39 telefono zenbakira.
- ARIZMENDIREN BERBALDIAK**
Arizmendi Ikastolak hainbat berbaldi antolatu ditu Haur Hezkuntzako gurasoendako. Astelehenean eta martitzenean Olarten; martitzenean eta eguaztenean Santa Teresan; eta eguaztenean eta eguenean, Umezaintzan, besteak beste.

AEDren AGENDA

- DEBAGUNEN EGUTEGIAK ETA KANTU LIBURUXKAK, SALGAI**
Debaguneraren 2005eko egutegiak eta herri-kantuen liburuxkak salgai daude AEDn. Lehena 2,7 eurotan eta bigarrena 2,6 eurotan.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAIN DELA 10URTEARRASATEN

Aldundiak 40 milioi pezeta gutxiago eman Udalari

Orain dela hamar urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko urtean baino 40 milioi pezeta gutxiago eman zizkion Arrasateko Udalari. Udaleko ordezkariak ez zuten bat egin Aldundia- ren erabakiarekin. Bestalde, udalbatzak onarpena eman zion 1995eko udal aurrekontuari.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kinkillero"



Kinkila saltzen etxex edo azoketan dabilena. JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Danbaka musika lehiaketako irabazleen kontzertuak asteburuan Arrasate Irratian

Danbaka Debagoieneko I.Musika Lehiaketak dagoeneko baditu irabazleak: Oñatiko Sharon Stoner eta Arrasateko Enboskada taldeak. Uste bezala, oso final lehiatua izan zen eta epaimahaikideek ez zuten lan erraza izan, irabazlea erabakitzeke orduan. Arrasate Irratia ere Elgetako Espaloia Antzokian izan zen, eta zapatuan 16:00etan izango duzue irabazleen doinuak entzungai FM 107.7an. Bigarren aukera martitzenean izango da, 20:00etan. Bigarren saria, Enboskada taldeari egokitu zaio ikus-entzuleek

bidalitako SMS mezuen bitartez. Enboskadaren kontzertua entzuteko, beste bi aukera emango dizuegu: domekan, 16:00etan edota eguaztenean, 20:00etan. Kontzertuak entzun aurretik, lehiaketako epaimahaikideek eta irabazleek kontatutakoak entzuteko aukera izango duzue. **ASTEBURUKO GAINBEGIRATUAN** Oier Etxebarria atxabaltarrak Txinan bizi izan dituenak, Pello Zabalen gaineko txutxumutxuak, zapatu eta domekan, 10:00etan.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 12	-2 °C
MAXIMOA Zapatua, 15	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	33,2 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 12	12 °C -2 °C 0,8 l/m²
Eguena, 13	12 °C 7 °C - l/m²
Egubakoitza, 14	17 °C 2 °C - l/m²
Zapatua, 15	16 °C 0 °C - l/m²
Domeka, 16	15 °C 0 °C - l/m²
Astelehena, 17	13 °C 1 °C - l/m²
Martitzena, 18	9 °C 2 °C 32,4 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**: Pello Zabala; Oier Etxebarria; Itxaro Artola, Korrika kulturalaren koordinatzailea; Julene Iturbide, Gautxorri etxearen gainean...
- 16:00 **Danbaka**: Sharon Stoner.
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- 16:00 **Danbaka**: Enboskada.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.**
- 12:30 **Izarren ordua**: abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi**.
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Debagoienien tranbia ipinttie?



MIGUEL ANGEL ARROYO
Langillie

Oso ondo pentsetan jat tranbian egitasmue. Aretxabaletan egitten dot lan, eta tranbia egon ezkeru etxien kotxe bat kenduko geuke. Holaxe dirue aurreratuko geuke.



IKER URTZELAI
Ikaslie

Egixe esateko, proiektue ez dot askorik ezaguketan, baiñe idea ona dala pentsetan dot. Tranbiai esker trafikuek behera egingo leuke eta pentsetan dot harrera ona eukiko leukela.



ROSA MARI MORENO
Langillie

Oso ondo pentsetan jat, proiektu interesgarrixe da. Transporte komodu da, eskura egongo litzake, eta, gaiñera, kotxe gutxiau ibilliko litzake karreteran; kontuen eukittekue.



MERCEDES MERCADER
Etxekoandrie

Herri barruen ibiltteko eta inguruko herrixetara jueteko oso ondo egongo litzake. Gaiñera, Debaraiño aillegetan bada plaiara jueteko be edarto; autobusien baiño hobeto.



ELIAS OTERO
Erretiraue

Neuri oso ondo pentsetan jat tranbian asuntue. Neuk asko ibilliko neuke, baiñe pena batekin geratuko nitzake: Aramaixora ez litzakela aillegauko. Eta hori eskatuko neuke nik.



ELI ANDUAGA
Langillie

Oso proiektu interesgarrixe dala pentsetan dot. Oñatin bizi naz, eta bertan egitten dot lan. Hala eta be, kotxien jueten naz lanera, eta tranbiakin ez neuke holakorik egingo.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ESERLEKU GEHIAGO Sail honetan gehienetan kezkek edo kexuak aditzera ematen ditugun arren, kasu honetan txalotzeko moduko zerbaiten berri eman digute. Herritar batzuek esan digute dagokionari eskerrak emateko. Uarkape inguruko espaloi estalian eserlekuak ipini dituztelako. Lagun asko ibiltzen dira inguru horretan paseatzen, eta, euren esanetan, askok erabiliko dituzte.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

Gautxori bota egin dute

Garaia Berrikuntza Gunea eraikitzen hasteko, Uribarri auzoaren eraldaketa hasi berri dute.

KIROLA /8

Jonathan Perez Valentziara

Euskadiko txapeldun izan den Jonathan Perez pertika jauzilaria Valentzian izango da.

ZAHARRAK /14

Musakolako elkarte

Dagoeneko abian da Musakolako erretiratuen elkarte berria San Isidron egiteko egitasmoa.

ASTEKODATUA

6.000

EURO BATU ZITUZTEN HARREMANEN AZOKAN

Harremanek Gabonetan Monterronen jarritako arte erakusketak arrakasta izan zuen. 1.500 lagun baino gehiagok ikusi zuten erakusketa eta 6.000 euro batu zituzten artelaren salmentarekin.

BESTEKEESANA

“

(Aitor Lopez Rekarteri) txistu egiten diote denboraldia hasi zenetik, baina igandekoa eskandaluz-

koa izan zen. Ezin dugu gehiago. Norbaitek azaldu beharko luke zer egin duen Aitorrek halako presioa eta tratu jasangaitza jasan behar izateko. 15 urte baino gehiago darama Realean, oso maila altuan jokatu izan du, taldearengatik sentitzen duena erakutsi du, hain zuzen beste eskaintza batzuei jaramon eginda taldearekin fitxa berrituta... (...) Harrobia aldarrikatzen duten nazkagarriak De Pedro, Gabilondo, Arantzabal eta Idiakozi txistu egiten zieten berberak dira (...). Batzuek interesa dute Anoetan giro txarra sortu eta zuzendaritza kanporatzeko. Horretarako, Realeko kapitaina erabili gura dute.

BITTOR ARRIARAN
'GARA'/05-01-12

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Bolante-kolpeak

Hara, San Andresen aurrera nentorren, kalerantz bidean, garajeen atzeko gurpilari zulatua konpondu ostean. Eurria ari zuen. Normalean kotxean musika entzuten dut baina abenduko ilunkera goibel hartan politikarien eta irratiko komentarieten berbei adi nindoan, hura saltsa Arnaldoren hiru baietzek sortu zutena, Patxiren aienak, Joseba eta Begoñaren bozkarioa, Carmeloren apokalipsia, Josu Jonen... Josu Jonen...

Halako batean nire aurrean zihon gidariak bolante-kolpe zakarra eragin zion autoari, ezustean errepidera irtendako txakurren bat ez zapaltzeko edo? Bai zera! Sartu da bide bazterreko putzuan eta goitik behera blai egin du espaloian zebilen aguretxoa. Kabroia! Agurea geldi-geldi geratu zen guardasola eskuetan, ez zuen jiratzeko keinurik ere egin, sikiera hasi balitz hijoputaka, baina ez zuen zirkinik egin

gaixoak, han galdu zen nire erretroisorean, koitadua.

Bi tipo zihozten kotxean, zuria, gidari hasiberrien L-a atzean erdi eroria, horretarako nahi duk karneta? Sar ezak atzeko zulotik! Aurreraxeago, Laubideko semaforoan gelditu egin zen, gorria, eta ni atzean geldi. Aterako nauk ba kotxetik, helduko diat kolkotik eta putzuan sartuko muturrez aurrera...! Ez nuen halakorik egin, jakina. Gizonari zutik dagoela hartzen zaio neurria, edozein jostunek esango dizu, eta jendea kotxean

jarrita ibiltzen denez... Hobe gauzak daudenetan uztea. Akaso umetan karatera apuntatu banintz solfeo ikasi beharrean, baina adreiluak eskuz apurtzeak min ematen zidan arras.

Kontuz gero..., zutitzen banauk..., hala ibiltzen gaituk askotan. Gero, noizbait deskuiduan errepide erdian zaplatzeko hasteko tenorean aurkitu ezkeru, orduan komeriak, ez dok, Josu Jon?

“Aurrean zihon gidariak bolante-kolpe zakarra eragin zion autoari”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Xabier Urzelai
Jon Berezibar

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzarne Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Meningitisaren kontrako txerto kanpaina


Aurrera doa Meningitis C gaixotasunaren kontrako txertoaren kanpaina. Ikastetxeetan Osakidetzak kanpainarako propio kontratatutako bi erizain eta laguntzaile bat dabilza lanean. Ikasten ez dabilzan 16 eta 20 urte bitarteko gazteak, berriz, anbulatorioetan dabilza txertoak hartzen. Osakidetzatik, gainera, behin eta berriro errepikatu dute garrantzitsua dela adin horietakoek txertoa hartzea. Eta, aipamen berezia egin diete ikasten ez dabilzan gazteei, anbulatorioa joateko esanez. Ikastetxeetan erantzun ona dabil izaten.

Udalatxeko meatze jardueraren kontra

Ezker Batuak Berdeak alderdiak martitzenean egin zuten Hirigintza Saileko batzarrean eskatu zuen Udalatx mendian egiten dabilzan meatze jarduerak gelditzeko, "jarduera horrek obra lizentzia behar du, eta horrelakorik ez daukateenez, lanok legez kanpokoak dira", esan zuen Ander Rodriguez zinegotziak. Hala, Hirigintza zerbitzuko teknikariei eskatu zien egoera hori aztertzeke, eta gaineratu zuen Udala dela orain obra lizentzia eman edo ez erabaki behar duena. Erreferenduma eskatu zuen Ezker Batuak: "Arrasateko herriak hitza izan behar du gure herriaren sinbolo den Udalatxen jarduera hori baimendu aurretik".

Alderdi Sozialistakoak, Donostian

Alderdi Sozialistak Estatu osoko udal ordezkariak batu zituen asteburuan Donostian, Kursaal jauregian. Estatuko 1.500 ordezkari inguru elkartu ziren han, tartean, Arrasateko sozialisten bozeramaile Paco Garcia. Donostian izan ziren, baita ere, Alderdi Sozialistako agintariak. Gobernuak presidente Zapatero izan zen protagonista. Besteak beste esan zuen gertu zegoela ETArekin berba egiteko, eta berretsi egin zuen ez duela Ibarretxe Plana onartuko.

**Borroka eguna egin zuten, egubakoitzean**

Haika-Segi erakundearen auzia dela-eta, Amaia Arrieta preso arrasatearrendako hamar urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak. Prozesu horren kontra egiteko, eta Amaia Arrieta eta gainontzeko atxilotuen egoera salatzeko, kale agerraldiak egin zituzten joan den egubakoitzean, bai Arrasaten eta baita ibarreko gainontzeko herrietan ere.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Legedia bete edo aldatu

Azken aldi honetan askok daukagu euskal politikagintzan gauzak mugitzen dabilzan sentsazioa. Horretan zeresan handia izan dute Batasunak egindako adierazpenek, baina zoritxarrez gainontzeko alderdi gehienek ez dute fitxarik mugitu gura izan eta ETaren azkeneko ekintzek ere giroa gaiztotu egin dute eta ez mugitzeko argudioak

eman dizkiete hainbat talderi.

Beste alderdi batzuetan ez dago inolako hobekuntzarik. Orain dela gutxi Iñaki de Juana Chaos preso askatuko zutela esan zuten, zego-kion zigorra beteta zuelako. Komunikabideek iskanbila handia eragin zuten, eta orain berriro auziperatu gura dute, Chaosen argitaratu dituen iritzi artikulua

batzuentatik. Dagoeneko ez dira ekintzak zigortzen, pentsaerak baizik. Galdetu iezazozue Galindori.

Ibarrean kasu larriago bat daukagu. Jon Agirre aramaioarrak aspaldi bete zituen zigorraren hiru laurdenak eta gainera oso gaixo dago. Espainiako Estatuak legedia propioa bete dezan herri-plataforma zabalak osatu dituzte bizilekutat izan zuen Arrasaten eta baita Aramaio jaioterrian ere.

ASTEKOIRUDIA

**TXURROAK HERRITARRENDAKO, ETA BIZITASUN APUR BAT SEBER ALTUBERI**

Batzuen ustetan, Seber Altube plaza aldatu zutenetik erdi-hutsik gelditu da, zerbait falta zaio. Egia esanda, han dauden zuhaitzak hazi artean sentsazio horrekin geldituko gara asko. Azken egunetan, berriz, beste elementu bat aurkitu dugu plazako paisaia biluzian. Urte pila baten Garibaien jarri duten

txurro-denda Seber Altuben kokatu dute orain dela gutxi, eta hor egongo da otsaila erdialdera arte, gutxienez. Ez dakit arrasatearrak oso txurro-zaleak garen edo ez, baina plaza alaitzen lagunduko du. Kultura etxea bukatu artean behintzat mesede hori egingo digu. //B.



**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

Gorka
ileapaindegia
peluqueria

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Bainuetxe 10 - 943 77 13 78
ARETXABALETA

Gili Gili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



CANTE FLAMENKO LEHIAKETAKO SAIOAK, BIHAR, AL ANDALUSEN

Al Andalus kultura elkarteak antolatzen duen III. Arrasate Cante Flamenco Lehiaketako bigarren finalerdia egingo dute bihar, zapatua. Saio horiek elkartearen egoitzan egiten dituzte. Zapatuko saioetara joan ezin duten ikusleek badute lasai egoteko motiboa, hurrengo zapatuan ere, hilak 29, saio gehiago izango direlako. Hori bai, finala ez dute errepikatuko, hortaz, lehiaketako saioak jarraitu dituztenek eta cante flamenkoa bertatik bertara ezagutu gura dutenek, jakin, otsailaren 19an egingo dutela finala, Amaia Udal Antzokian.



GURA BESTE LAGUN DITUZTELA ERAKUTSI DUTE ENBOSKADA MUSIKA TALDEKOEK

Enboskada musika taldekoek hasiera batetik zeukaten argi gaitza izango zela Danbaca Musika Lehiaketan finalera sailkatzea, eta egin zuten emanaldia ere ez zuten lehiaketara begira egin. Telebista kamerak zeudela ahaztu, eta ohiko emanaldia egin zuten. Eta, aurreikusitako moduan, ez ziren finalera sailkatu. Arrasatekoak, baina, ez dira

esku hutsik geratu, publikoaren sariari esker bateria bat eta mila euroko saria jaso dute-eta. Ez da izan kalitate gehien erakutsi duen taldea, baina argi geratu da lagun mordoa dituztela, askok egin dute-eta euren alde. *Asteleheneko Goienkaria*-n irakurri dugu diruarekin soinua mahaia erosiko dutela, lokaleko talde guztiak erabiltzeko. Zorionak!!!



AURTEN ERE BIKAIN IBILI DIRA GABONETAN, TXIKILANDIAN

Eta bestela galdetu egunero-egunero Txikilandiarra joan diren 500 neska-mutikoei. Lau egunez, Arrasateko eta inguruetako gaztetxoek aukera paregabea izan dute Txikilandian zeuden tailer, joko eta bestelakoekin gozatzeko. Gaztetxoek gain, guraso asko ikusi genituen umeekin jolasten, eta umeak berak baino gehiago gozaten. Antolatzaileek balorazio baikorra egin dute, eta sekulako lana izan bada ere, gustura geratu dira emaitzarekin.

GARRAIOA / Eskoriatzatik Maltzagarainoko tranbia

Erdi-erditik zeharkatuko du Arrasate ibarreko tranbiaren lehenengo zatiak

UBANE MADERA

Deba ibarrerako tranbia egin gura du Jaurlaritzak, Eskoriatzatik Maltzagaraino. Tranbiaren lehen zatia Bergararik Aretxabaletarainokoa izango da. Orain, zati hori egiteko behin-behineko proiektua udaletxean da, ikusteko. Alegazioak aurkezteko epea zabalik da, 30 egunez.

Bergara iparraldean hasi eta Aretxabaletako Gipuzkoa plazaraino iritsiko da tranbiaren lehenengo zatia. Tartean, Arrasate zeharkatuko du, erdi-erditik: Musakolatik sartu eta San Andrestik aterako da. Hala, Musakolatik sartu eta Gipuzkoa etorbideetik, Otaloratik eta Zarugaldetik pasatuko da, eta Eskola Politeknikora iritsiko da. Loramendi kaletik segituko du; han, mendia zeharkatuko du, San Andres auzora iristeko. Eta handik Aretxabaletarako bide zaharra hartuko du.

Udaletik jakinarazi digutenez, ibilbidea egiteko, Jaurlaritzak eta Udala elkarlanean ibili dira.

BI ERAIKIN BOTA BEHARKO DITUZTE

Baina horrek ez du esan gura Arrasaten tranbiak ez duela aldaketarik eragingo. Handiak izango dira aldaketak, batez ere ibilgailuen joan-etorriari dagokionez: Musakola sarrerako zubia handitu egingo dute, eskuma aldetik. Horren ondorioz, Motozaleen Elkartek egoitza duen eraikina bota egingo dute. Aurrerago, Zarugalde autoendako itxi egingo dute, tranbiarendako izango da; Bizkaia etorbidearen amaierako biribilgunea kendu egingo dute, eta errepede zati hori noranzko bakarrekoa izango da; Udala plazatik Eskolara joateko dagoen zubia handitu egingo dute. Loramendi kalean tunela zabalduko dute, San Andres auzo-




San Isidro zubia handitu egin beharko dute, eta, horren ondorioz, Motozaleen Elkartek egoitza duen etxea bota egin beharko dute; Takolo baserria ere botako dute.

raino; eta han, Takolo baserria bota egingo dute. Bestalde, oro har, 200 bat aparkaleku kendu beharko dituzte Arrasateko udalerrian.

30 EGUN ALEGAZIOAK AURKEZTEKO

Halaxe dio Eusko Jaurlaritzak egindako behin-behineko proiektuan. Hain justu ere, proiektu



hori Arrasateko udaletxean dago. Interesa duenak eskatu egin dezake, ikusteko. Eta konforme ez dagoenak 30 egun ditu alegazio-

ak aurkezteko; eta Udalak bi hilabete ditu gauza bera egiteko. Gero, alegazioak aztertu eta onartu edo ez erabaki beharko dute.

Tranbiaren ibilbidea, geralekuak eta bestelako datuak

Arrasaterako honako ibilbidea proposatu du Jaurlaritzak behin-behineko proiektuan: Elorregi-Epele-Eroski-Musakola-Gipuzkoa Etorbidea-Maala-ko biribilgunea-Otatora Lizentziaduna-Zarugalde-Bizkaia biribilgunea-Udala plaza-Loramendi kalea-tunela-San Andres auzoa-Fagor-Aretxabaletako bide zaharra.

Ibilbide horretan, hamar geraleku izango ditu tranbiak: Elorregi-Etzezarreta (aurrerago)-Eroski-Musakola-Gel-

ma parean-Correos parean-Arbolapetan-Eskola Politeknikoan-San Andres auzoan eta Fagorren.

Bergararik Aretxabaletarako zatian, Arrasatekoa da egiteko zailena.

36 hilabete (hiru urte) beharko dituzte zati hori egiteko, baina oraindik ez dute lanak hasteko datarik zehaztu. Lehenengo, behin-behineko proiektuari egingo dizkiofen alegazioak jaso, aztertu eta erabaki beharko dituzte; aldaketarik badago, horiek sartu; eta proiektu-

ak aurkeztu. Eta gero, behin betiko onepena eman eta esleipen prozesuarekin hasi beharko dute. Hilabete asko pasako dira.

90.078.467 euroko aurrekontua zehaztu dute lanok egiteko.

Eusko Jaurlaritzak egindako kalkuluen arabera, Bergararik Aretxabaletarainoko ibilbidea egiteko tranbiak 33,6 minutu beharko ditu; eta Arrasateko ibilbidea osoa egiteko (Musakola-Fagor San Andres), 11,1 minutu.

Uribarri auzoa eraldatzen

U.M.

Martitzen gauean, Garagartzara doan errepede itxi egin zuten, Gautxori eta Gautxori-Ondo etxeak botatzeko. Irailean hustu zituzten etxeok, jakinda Garaia Berrikuntza Poloa eraikitzeko inguru guztia eraberritu behar dutela. Besteak beste, Urta eta Goiru ere botako dituzte.

Julene Iturberendako egun tristetza izan zen eguaztena; familiak eraikitako Gautxori etxea bota egin zutelako. Garaia Poloa eraikitzeko lekua egiten dabilta

Uribarrin. Hala, bada, etxe horren eraistearekin batera hasiko gara igartzen Uribarri auzoak datozen hilabeteotan izango duen eraldaketa.

MEÑDE HASIERAKO ETXEA

Horrenbestez, aldaketak gertatzen doazen neurrian, historia apur bat egingo dugu, oroitzapenerako. Kasu honetan, Gautxori etxea izango dugu protagonista.

Urte luzez Gautxoriko bizilagun izan den Julene Iturbek Arrasate Irratiari kontatutakoaren arabera, 1922an eraiki zuten

Gautxori, Gomestio baserrikoek. Bost familiarendako etxea zen, eta behean taberna ipini zuten; hari ere Gautxori ipini zioten (1923-24an zabaldu zuten taberna). Ondo asko gogoratuko dute taberna hura Amat, Nito... fabriketako beharginek. Julene Iturbek kontatu digunez, taberna familiarra zen, mokadutxo bero eta goxo bat sekula ukatzen ez duten horietakoa. Gautxori etxean jaio eta hazi zituen Julene Iturbek lau alabak. Eta bizitza han eman ostean, 1999an utzi zuten, penaz. Orain, azken agurra egin beharko diote.



Martitzen gauean bota zituzten Gautxori eta Gautxori-Ondo.

Aurten hasiko dira Mojategiko kirol instalazioak egiten

UBANE MADERA

Aurtengo aurrekontuetan onartutako partiden artean, 1.850.000 euro onartu ditu Udalak Mojategiko kirol instalazio berriak egiteko. Besteak beste, futbol eta errugbi zelaiak egingo dituzte.

AUKEAko arduradun Ramon Jauregik Arrasate Irratiari adierazitakoaren arabera, zera egin gura dute Mojategin: futbol zelai berria, haren ondoan, atletismoko pista, errugbi zelaiak, tenis pista bi, paddlelean jokatzeko bi gune, skate-park bat, urruneko agintedun ibilgailuekin ibiltzeko lekua eta bestelako eranskinak (taberna bat, gimnasioak...).

EKAINA-MAIATZEAN HASIKO DIRA

Ramon Jauregik gaineratutakoaren arabera, lanon proiektua bukatzeaz gainera, Asmoa da urtarilean egingo den osoko bilkuran aurkeztea, udalbatzarrak onepena eman diezaion. Hala, bada, Udalak onartzen badu, maiatzean

edo ekainean hasiko dira lanak egiten, eta, kalkuluen arabera, 18-20 hilabete barru bukatuko dituzte. Horrenbestez, 2006aren amaierarako edo 2007aren hasierarako kirol instalazio berriak erabiltzeko moduan izango dira.

Hamar-hamaika milioi euro beharko dituzte lan guztiak egiteko. Aurtengo aurrekontuan, Udalak 1.850.000 euroko partida onartu du Mojategirako.

GABEZIAK BETE

Ramon Jauregiren esanetan, instalazio berriekin lortu nahi dena da zenbait kirol modalitatetan dauden gabeziak bete eta bestelakotan dauden baldintzak hobetu: errugbi eta futbol zelaien kasua, esaterako.

Bestalde, oraingo proiektuari Mojategi izena eman bazaio ere, AUKEAko arduradunak argi utzi gura du lanak bukatu ostean, Musakolako kirol instalazioen barruan integratuko direla Mojategikoak; azken batean, helburua Arrasaterako kirol-gune garrantzitsua sortzea da-eta.



XU

Errugbiaren kasuan moduan, Arrasaten kirol arloan dauden gabeziak ase gura dituzte.



Arrasateko
euskalgintza

Elkarteen arteko elkarlanari esker, euskalgintza aurrera doa

UBANE MADERA


2004ko balorazioa egin zuen eta 2005-2006ko ekintza plana adostu zuen Arrasateko Euskalgintzak joan den abenduan egindako Ohiko Batzarrean. Oro har, egindakoaren balorazio ona egin zuten euskalgintzan lanean diharduten taldeetako ordezkariak.

Arrasateko Euskalgintzako koordinatzaile Leire Bergarak eman digu abenduko batzarraren nondik norakoen berri. Esandakoaren arabera, honako balorazioa adostu zuten: "Lan ona egin da, euskalgintzak aspaldi honetan egin duen gauza onenetakoa, elkarleen arteko harremana sendotu eta lan harremanak asko erraztu dira: aipatzekoa da kohezioan, indarrak biltzen eta elkarlanean egindako lana". Gaineratutakoaren arabera, orokorrean 2004an planak aurrera egin du: plana eta erakundeak finkatuz joan dira. "Martxa hartu dugu eta hainbat ekintzatan helburuak lortzen hasi gara: aurreneko helburu orokorrean egin da lanik handiena eta bigarrenean ere egin dira lehenengo urratsak".

Edozelan ere, zenbait arlotan hobetzeko beharra dutela ikusi zuten euskalgintzako taldeek.

INDARRA BERRESKURATZEKO BIDEAN

Orokorrean, ikusi dute aurreko urteetan hartutako indarra apurtxo bat galdu dela eta taldeen artean nekea ere nabari dela (batzar asko...). Hala, bada, horiei aurre egiteko zera proposatu dute: lehentasunak ondo aztertu eta



Euskalgintzak egindako hausnarketaren arabera, orain arte lan ona egin dute

Hobetzeko bidean, erabaki dute ekintza gutxiago abiaraztea eta abiarazita daudenak indartzea

finkatu; eta egin beharreko lanari dituzten errekursoak-eta kontuan hartuta aurre egin.

Hobetzeko artean, euskalgintzan diharduten lantaldeen gainera hausnarketa egin zuten, eta honakoa ondorioztatu zuten: lantalde batzuek indar handiagoa behar dute aurrera egiteko; lantalde askoren dinamika piztea, neurri handi batean, dinamizatzailearen esku dago; eta

duten gaitasunerako lantalde gehiegi dituzte abiarazita. Hala, bada, hobetzeko bidean, besteak beste, erabaki dute ekintza gutxiago abiaraztea eta abiarazita daudenak indartzea.

Oro har ikusita, bada, orain arte egindakoa oso modu positiboan baloratu du euskalgintzak. Hitzartutako ibilbidearen erdira iritsi da eta aurrera egiteko bidea zabalik du, elkarlanari esker.

LABUR

Europako Konstituzioaren erreferenduma dela-eta, mahaikideen zozketa egingo dute

Astelehenean, hilak 24, egingo dute Europako Konstituzioaren erreferendumean hauteskunde-mahaietan egon behar duten herritarren zozketa. Arrasaten 32 mahai ipiniko dituzte: Ferixalekuan, Musakolan, Santa Marinan, San Andresen, Erguinen eta Jokin Zaitegin. Mahai bakoitzerako bederatzi lagun aukeratu beharko dituzte, hiru finko eta beste sei ordezeko. 19.309 lagun daude errolatuta erreferendumean parte hartzeko. Oraingo egubakoitzetik datorren egubakoitzera, 21etik 28ra, ipiniko dituzte zerrendak udaletxepean.

Herri pobreekiko justizia eta elkartasunerako gutuna onesteko eskaera

Gobernuz kanpoko zenbait erakundek eta zenbait herritarrek batzara egin dute Arrasaten. Jakinarazi digutenez, 30.000 sinadura batzen hasiko dira, Legebiltzarrari honako hau eskatzeko: herri pobreekiko justizia eta elkartasunerako gutuna onestea. Besteak beste, EAERI dagokion kanpo-zorraren zatia barkatzea eskatuko dute. Datorren astean esango digute non jasoko dituzten sinadurok.

Ekintzak, lehentasunak eta helburuak

2005ean 15 lantalde ibiliko dira lanean. Horieta 13 2004tik datozen ekintzak dira eta bi berri abiaraziko dituzte.

Gogora ekarri behar da, bestalde, euskalgintzak lau helburu dituela:

1. Euskalgintza gorpuztu eta artikulatu, sinergiak eta plan bateratua lortzeko.
2. Gizarteko arlo estrategikoak euskalduntzeko plana egin.
3. Euskararen ezagutza bermatu eta erabilera sustatu, gizabanakoengan eta gizartean, ahalik eta hizkuntza kalitate handienarekin.
4. Herritarrek euskararekiko pentsaera, jarrera eta jokaera baikorra eta aktiboa izatea lortu.

Eta helburu horiek lantzeko, honako lehentasunak ezarri dituzte:

1. Helburu Orokorrerako: euskalgin-

tzaren koordinazioa AEDk hartu behar badu, hori planifikatu. Barne eta kanpo komunikazio plan on bat izatea, elkar elikatzeko nahikoa indar dagoela ikusten da-eta. Eta euskalgintzaren kohezioa zaindu eta barne komunikazioa areagotu.

2. Helburu Orokorrerako: urratsak zehaztu eta horien arabera ekintzak abiarazi. Udalarekin elkarlanean ibili, koordinazio onena lortu, teknikarien arteko elkarlana bermatu lan bera bi aldiz ez egiteko eta euskalgintzak ere ekarpenak egin ahal izatea. Horretarako gaiaren inguruan euskalgintzako kideek adostu behar dituzte jarrerak eta jokatu beharreko rolak.

3. Helburu Orokorrerako: finkatu, eta dauden taldeekin jarraitu bukatu arte.

ELKARRIZKETA

JONATHAN PEREZ/REAL SOCIEDAD TALDEKO PERTIKA JAUZILARIA

“Entrenamenduetan egiten dudana txapelketetan egitea falta zait”

ARRASATE IRRATIA / X.U.

Euskal Herriko txapeldun izan berri da, baina ez du amestutako helburua bete. Jonathan Perezek 4,75 metroko jauzia egin zuen joan den zapatuan, baina gutxi-gatik ez zuen 4,95 metroko hesia gainditu. Valentzian izango da asteburuan, bost metroei begira.

Txapela eskuratuta ere, zapo-re gazi-gozaekin itzuli zinen Anoetatik.

Bai, pozik nago Euskadiko txapelduna naizelako, baina ez nuen marka onik egin. 4,75 metroko hesia erraz gainditu nuen, eta 4,95 metroko jauzia egiterakoan pertika aldatu nuen. Lehenengo jauzian gutxi-gatik ez nuen hesia gainditu, eta inpultso handiagoa hartzea nahikoa izango zela pentsatu nuen. Bigarren jauzian ere ez nuen lortu, eta hirugarrenarako urduri jarri nintzen.

Asteburuan izango duzu beste aukera bat, Valentzian.

Bai. Orkatilan min hartu nuen, baina Valentzian joateko gogoz nago, giro ona izaten da-eta. Kluben arteko txapelketa da, eta estatuko pertika jauzilari guztiak izaten gara han. Giro ezin hobea egoten da, baita lehia polita ere. Horrelako txapelketetan marka onak egiten ditugu.

Entrenamenduetan ere sekulako markak egiten dituzu.

Bai, entrenamenduetan egiten dudana txapelketetan egitea falta zait. Naroa Agirrerekin entrenatzen naiz, eta hark esaten dit nirekin gusturago entrenatzen dela, motorra bezala joaten naiz-



ARRASATE ATLETIKO TALDEA

eta. Hura entrenamenduetan ez da horren ondo ibiltzen, baina txapelketetan daukan dena ematen du. Nik alderantziz egiten dut: entrenatzen 5,10 metroko jauzia egiteko gauza naiz, baina txapelketetan...

Arrasaten, Lander Errasti ere indartsu dator.

Oso indartsu. Pertikarekin orain arte moduan jarraitzen badu, nik egindako markak gainditu egingo ditu, eta horretan lagunduko diot, gainera. Euskadi mailan, eta baita Estatu mailan ere, Arrasatek atleta gazte onak ditu, baina aurrera jarraitzeko bitartekoak behar dituzte.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Manhattan Pippol - Fuxion	2-3
Dribling - Iritz	6-3
AC Surcos - La Kuadrilla	7-4
HLB - Tomahawk	2-3
Betrayer - Saukelu Scream	4-10
Abokajarro - Lasagabaster	2-2
Goma2 - AT Celaya	4-2
Billy & The cowboys - You Know!	4-3
Irati Taberna - Torpedo Musakola	9-0

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Irati Taberna	13	8
2. You Know!	12	8
3. AC Surcos	12	8
4. Dribling	11	8
5. Lasagabaster	11	8
6. Saukelu Scream	10	7
7. Goma2	10	7
8. Iritz	9	7
9. Betrayer	8	7
10. HLB 108	8	8
11. AT Celaya	7	7
12. La Kuadrilla	6	8
13. Abokajarro	5	8
14. Billy & The Cowboys	4	6
15. Tomahawk	4	7
16. Fuxion	4	8
17. Ekipo Aldeano	3	7
18. Torpedo Musakola	3	8
19. Manhattan Pippol	2	7

PARTIDUAK

URTARRILAK 22, ZAPATUA. EPAILEAK

- 11:00: Billy & The... - La Kuadrilla. Antolatzaileak.
- 12:00: Fuxion - Goma2. Antolatzaileak.
- 13:00: Iritz - Dribling. Antolatzaileak.
- 16:00: Saukelu - Betrayer. Antolatzaileak.
- 17:00: Tomahawk - Lasagabaster. Antolatzaileak.
- 18:00: You Know! - Torpedo M. Antolatzaileak.

URTARRILAK 23, DOMEKA. EPAILEAK

- 11:00: Irati - HLB 108. Antolatzaileak.
- 12:00: Abokajarro - AT Celaya. Antolatzaileak.
- 13:00: Billy & The - Tomahawk. Antolatzaileak.



KOPAKO FINAL-ZORTZIRENAK, ASTEBURUAN

LIGA TXAPELKETA DESKANTSUA IZANGO DU

Oraingo asteburuko jardunaldia Kopari dagokiona izango da, eta txapelketa horretako final-zortzirenak egongo dira jokoan, gainera. Jakin, kanporaketa horiek partidu bakarera direla. Hortaz, asteburuan galtzen duenak Kopatik kanpo geratuko da.

Oraingo jardunaldiari dagokionez, txapelketako arauan hainbat aldaketa izango dira. Hasteko, antolatzaileek epaituko dituzte norgehiagoka guztiak. Jokoari dagokionez, taldekide batek atezainari pasea egiten badiu, atezainak ezin izango du baloia eskuekin hartu. Eta beste horrenbeste gertatuko da albo saketan: area barrutik atera behar badute, atezainak ezin izango du baloia eskuekin hartu. Azkenik, partidu bakarrek kanporaketak direnez, berdinketa egonez gero bost minutu iraungo duten bi zati jokatuko dituzte. Zati bakoitzeko talde bakoitzak bi falta egin ahal izango ditu. Hirugarren falta egindakoan penaltia adieraziko du epaileak.

PILOTA

Uarkapen jokatu du gaur Lazkanok, 21:30ean

Euskadiko Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu du Lazkanok gaur, egubakoitza, Uarkapen. 21:30ean hasiko den partiduan, Arrasatekoak Gasteizko Santa Luzia pilota taldeko ordezkariaren kontra neurtuko ditu indarrak. Orain arteko bi partiduak galdu egin badiu ere, gustura dabil Lazkanok: “Orain artekoak norgehiagoka parekatuak izan dira, 15na berdindu eta gero galdu ditut bi partiduak (18-22, 22-17). Joan den astean gustura ibili nintzen Atarrabian. Kontrarioak, baina, sekulako indarra zeukan”.

MENDIA

Besaiderekin sagardotegira joateko aukera

Besaide Mendi Elkartekoek urtero sagardotegira egiten duten irteera antolatu dute urtarrilaren 30erako. Aurten go sagardoa dastatu eta txulete haginada eman aurretik, baina, komeni da gosea egitea. Eta horretarako, mendi ibilaldia egingo dute Itziartik Zumaiara. Egun pasa horretarako, 08:00etan irtengo dira Garibaitik, eta ilunkaran itzuliiko dira Arrasatera. Interesa dutenek, jakin, urtarrilaren 26an eta 27an egongo direla Besaideren egoitzan izenak hartzen. Jakin, asteburu dagoela Formigalera eskialtzera joateko aukera.

ESKUBALOIA

Legazpiarren bisita izango du AGR Arrasatek, domekan

Andoni Arandoren mutilek ez dute urtea gura moduan hasi, eta joan den astean galdu zuten hirugarren postua lehenbailehen erreuperatzea izango dute helburu domekan. Horretarako, atzaldeko postuetan dagoen Hegialde talde legazpiarri irabazi beharko diote (Iturripen, 11:30ean). Arrasateko entrenatzailearen esanetan taldeak asko igarri du Gabonetan gutxi entrenatu direla, eta oporrak baino lehengo zeukaten joko maila berreskuratzea izango da eginbeharrekoetako bat: “Domekan, Hegialdek ez du ezer erabakiko; guk galdu edo irabaziko dugu partidua”.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOIA

Mugarri Alkesa - Getxo
Lehen maila. Zapata. 18:00. Iturripen.

FUTBOLA

Bergara - Mondra
Preferentea. Zapata. 16:00. Agorrosinen.

Aretxabaleta - Mondra
Ohor. Gazteak. Domekan. 16:30. Ibarren.

Arrasate - Ilintxa
Gazteak. Zapata. 15:45. Atxabalpen.

Beasain - Arrasate
Ohor Kadet. Zapata. 12:15. Beasainen.

Arrasate - Mutriku
Infantilak. Zapata. 11:00. Atxabalpen.

Mondra - Tolosa
Neskak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Hegialde
Lehen territ. Domekan. 11:30. Iturripen.

Eibar - Arrasate
Bigarren territ. Domekan. 09:30. Eibarren.

Elgoibar - Arrasate
Gazteak mut. Zapata. 17:30. Elgoibarren.

Andoain - Arrasate
Neskak. Domekan. 10:30. Andoainen.

Arrasate - Arrate
Infantilak. Domekan. 10:00. Iturripen.

ERRUGBIA

Arrasate - Atletico San Sebastian
Euskadiko Txap. Zapata. 16:15. Garagartzan.

PILOTA

Arrasate - Santa Luzia
Euskadiko Txap. Gaur. 21:30. Uarkapen.

SASKIBALOIA

Mugarri Alkesa badabil poliki-poliki sailkapenean dagokion lekua hartzen

Gorka Zurutzaren mutilek aurrerapauso handia egingo dute, bihar Getxori irabazten badiote (18:00etan, Iturripen)

XABIER URTZELAI

Gura baino gutxiagotan gertatu den arren, joan den astean Mugarri Alkesak benetan daukan gaitasuna erakutsi zuen. Deustukoak oraindik ulertu ezinda dabilta nolatan galdu zuten euren etxean 33 puntuko aldeagatik (62-95).

Eta Deustutik Getxora kilometro gutxi daudenez, biharko bisitariak dagoeneko izango dute joan den astean euren bizilagunei gertatu zitzaizaien berri. Kontrarioa gutxiesteko asmo barik etorriko dira getxotarrak; gainera, talde bizkaitarrak ez dauka horretarako motiborik, Mugarri Alkesa dagoeneko aurretik dago eta sailkapenean.

KONTRARIO ZUZENA

Sailkapenean ondo-ondoan dauden bi talde izango dira bihar zein baino zein gehiago Iturripen. Zazpigarren postuan dago Mugarri Alkesa, eta zortzigarrena da Getxo. Bizkaiko taldeak, baina,

dagoeneko izan du deskantsua; horrenbestez, partidu bat gutxiago jokatu dute.

Sailkapenean dagoen parekotasunaz gain, biharko partiduak baditu erakargarritasun gehiago. Biek hala biek erraz irabazi zuten joan den astean eta bolada onari jarraipena eman gura diote. Gainera, antz handia daukaten bi talde dira. Horixe azaldu digu Jagoba Gamarrak: "Getxok ondo erasotzen du, teknikoki trebeak dira, eta atzealdea dute ahulgune. Gure taldeak ere ezaugarri berak ditu; horrek esan gura du, defentsan baino erasoan gehien asmatzen duenak irabaziko duela partidua. Horrelako norgehiagokak ikusgarriak izaten dira".

Txapelketari dagokionez, jaitziera fasea ekiditea da Arrasateko taldearen helburua, eta azkenaldian erakutsitako mailarekin, badirudi Liga hasierako beldurrak ahaztu dituztela: "Etzeko partiduak irabazita ez dugu arazorik izango, baina oraindik kontrario gogorrak geratzen dira".



AITOR LIZARRALDE

"Getxon hamaika puntuko aldeagatik galdu genuen, eta garrantzitsua izango litzateke bihar hamabi puntugatik irabaztea".

Bergara behar handiarekin izango da Mondraren zain, derbian

X.U.

Mondra Agorrosinera joango da bihar (16:00etan), Bergararen kontrako derbia jokatzera. Igor Gordobil mutilek gura baino gehiago barkatu dute etxean, eta bigarren itzulian ez dute horrelakorik gura. Horren kontra egin beharko du bihar Mondrak.

Bergarak eta Mondrak derbia jokatu dute bihar, eta orain arteko derbietan ikusi dugunaren arabera, gutxi espero dute joko ikusgarria. Ez da hori, gainera, Arrasateko eta Bergarako entrenatzaileen ardura handiena, puntuak eskuratzearekin, nahiko. Mondrak baditu Bergarak baino lasaiago zelairatzeko hainbat arrazoi. Pisuzkoena, sailkapenak erakusten duen bederatziko alde.

Eta hori izan daiteke Zubia- ren mutilen aliatu onena: pazientziak jokatzeko. Jakina da atzealdean dabilenak pazientziarako tarte txikia izaten duela, eta bergararrak ez daude berdinketarekin konformatzeko moduan. Partidua irabazteko gora egin behar, horrek dakartzan ondorioak onartuaz. Batzuek esango dute behartsuaren goseaz baliat-



X.U.

Igoera fasea lehenengo postuan sailkatu den emakumeen Mondra taldea.

tzea dela hori. Ados. Eta hori da egin beharrekoa, gainera.

EMAKUMEAK, IBARREKO ONENAK

Joan den astean Almen UDA taldeari 1-4 irabazita amaitu zuten Mondrako neskek Gipuzkoako Txapelketako lehenengo fasea. Gipuzkoako txapelketan lau multzo egon dira, eta ibarreko taldeez gain, gasteiztarrek ere

Arrasatekoen multzo berean jokatu dute. Inigo Zabaloren neskek izan dira euren multzoko onenak, eta igoera fasean jokatzeke sailkatu dira. Arrasateko taldeko entrenatzaileak adierazi digu igoera fasean jokatzeko positiboa izango dela, "batez ere esperientzia hartzeko". Asteburuan estreinatuko dute igoera fasea, Tolosaren kontra.

FOTOKIROLA



Atletiko San Sebastianen kontra, zapatuan

Arrasateko Errugbi Taldeak norgehiagoka gogorra izango du bihar. Arrasateko taldeak jokalaririk asko ditu min hartuta, eta gainera, aurrean izango duten taldea, Atletiko San Sebastian, ligako gogorrenetakoa da. Arrasatekoek badakite bi taldeen artean alde handiegia dagoela, eta gaitza izango dela talde horren kontra punturen bat eskuratzea. Puntu horrek urrea balioko lukeen arren, Zarautz eta Santander taldeen kontra eman behar du Arrasatek neurria. Gainerakoak, pazientziak. /X.U



PRODUCCIONES CACHIVACHE

Jatorri argentinarra daukan antzezlan horretako pertsonaiak oso definituta daude eta dramatiko samarrak dira.

'La Nona', familia baten muturreko zailtasunak irudikatzen dituen lana

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Producciones Cachivache eta Teatro I Piau taldeek *La Nona* antzezlan egingo dute Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da eta sarrera 12 euro kostatuko da. 10 euro, gazte txartelarekin.

La Nona Argentinan sortutako antzezlan indartsua da, ikusleen erreakzioak pizten dituena. Roberto Cossa argentinarrak idatzi zuen 70eko hamarkada hasieran, eta hasieran telebista saio baterako egin gura zuen. Azkenean, proiektuak ez zuen aurrera egin. 1976an, Argentina diktadurapean zegoenean, Cossak idatzi hori eraldatu eta osatu egin zuen, eta antzezlan bilakatu. Seguruenik, Argentinan bizi zituzten garai gordinek eragin zuten azkeneko emaitzan.

ARRAKASTA, BAINA ARAZOAK

1977ko abuztuan estreinatu zuten lan hori Buenos Airesen, eta izugarrizko arrakasta izan zuen. Gobernu militarreko lagun batzuek antzezlan debekatzeko saiakera egin zuten, baina azkenean etsi egin zuten. Handik egun gutxira, saioa hasi aurretik ezegun batzuek molotov koktel bat bota zuten antzoki sarreran.

Zailtasunak zailtasun, antzezlan horrek aurrera egin du eta Amerikaz gain, Europan zehar ere antzeztu dute. Hain zuzen ere, 80ko hamarkadaren hasieran hainbat aktore argentinarrak lan

horren bertsio bat antzeztu zuten Espainiako Estatuan.

Ikuskizun horren protagonista da Espadone familia. Familia horrek ehun urteko amona asegaitz bati jaten emateko zama erraldoia du. Antzerkiaren zuzendari Carlos Videsek honela definitu du amona hori: "Elikagaien makina birrintzailea, bizi irauteko sena ez den beste sentimendurik ez daukana".

Kontua da familia horretako lagunek amona asegaitz horri jaten eman ahal izateko denetik egin beharko dutela: Carmelok gau eta egun egingo du lan azokan; Chichok ez du musika konposatzeko denborarik izango, arrandegian lan egin beharko

duelako; Martita bilobak botikan lan egin beharko du; izeba Anyulak lanbide eskasak egin beharko ditu; eta amak, Mariak, elikagai urriak ahalik eta ondoen banatu beharko ditu.

Kontatzen den istorioa gogor samarra da. Umore beltzaren zipriztinak ditu, baina antzezlan aurrera doan heinean pertsonaiak degradatzen joango dira. Pertsonaia horiendako guztia galduta dago, baina borrokatzen jarraitzen dute ahal duten moduan.

Producciones Cachivache eta Teatro I Piau taldekoek elkarlanean egin dute antzezlan hori, eta jatorrizko bertsioari ez diote aldaketarik egin gura izan. Zuzendari Roberto Cossari galdetu izan diote *La Nona* pertsonaiak zer irudikatzen duen. Heriotza, merkatu-ekonomia, familia, imperialismoa? Hark ez zion galdera horri erantzun gura izan. Gurago zuen ikusle bakoitzak pertsonaia horren esanahia bere mamuei egokitzea. Argi dagoena da pertsonaia beldurgarri hori metafora hutsa dela, eta istorioaren nondik-norakoek Argentinako diktaduran bizi izandako zailtasunekin harreman estua dutela.

Arrasaten egingo duten ikuskizunean eskola handiko lagunek esku hartuko dute. Zuzendaria Carlos Vides da, eta aktoreak honako hauek dira: Javier Leoni, Inma Sancho, Rafael Nuñez, Enrique Silva, Eugenio Villota, Aurora Herrero eta Carolina Martinez.

Antzezlan horren egilea Roberto Cossa argentinarra da, eta 1977an antzeztu zuten lehenengoz

Istoriok umore gordinaren zipriztinak ditu, baina gordina ere bada

Bi komedia: bat Quebecekoa eta bestea, garratzagoa

I.B.

Asteburuan hainbat film emango dituzte Amaia Udal Antzokian: gaur, egubakoitza, bihar eta astelehenean, Alex de la Iglesiaen *Crimen Ferpecto* emango dute; eta eguenean, *La gran seducción*.

Gaur, bihar eta astelehenean, *Crimen Ferpecto* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Alex de la Iglesia bilbotarraren (*Acción mutante*, *El día de la bestia*, *La comunidad*...) azkeneko filma da eta 105 minutu irauten du.

Rafael seduktorea eta handinahia da. Merkataritza-gune handi bateko emakumeen sailean egiten du lan, eta oso gustura dabil. Asko saltzen du eta emakume artean ederto konpontzen da. Lankide batekin eztabaida gogorra izango du eta ustekabean lankidea hil egingo da. Gertaeraren lekuko Lourdesek xantxia egingo dio.

Protagonistak honako hauek dira: Guillermo Toledo (*Al sur de Granada*, *El otro lado de la*

cama...), Maria Botto (*Soldados*, *Silencio roto*...) eta Monica Cervera (*Piedras*...), besteak beste.

EGUENEAN, QUEBECEKO FILM BAT

Eguenean, hilaren 27an, *La gran seducción* filma emango dute. 108 minutu irauten du eta Jean-Francois Pouliot zuzendariaren lehenengo lana da. Aurretik, *Erase una vez en América* eta beste film ezagun batzuetan laguntzaile gisa ibilia da.

Kostaldeko herri txiki bateko biztanleek ez daukate diru-iturririk. Herrian lantegi bat jartzeko baldintza mediku bat edukitzea da. Arrazoi horregatik, medikuak herrian iraun dezan ahalegin guztiak egingo dituzte, eta oso egoera barregarriak sorrazi. Protagonistak Ken Scott eta Raymond Bouchard dira. Film baten lan egiten duten lehenengo aldia; ez, ordea, telebistan.

Bestalde, bihar, zapatua, *Garfield* filma emango dute gazte-txoendako, 17:00etan. 75 minutu irauten du, eta Peter Hewittek zuzendu du. Animazioa eta ekin-tza erreala uztartzen ditu.



ARRASATE PRESS

Alex de la Iglesia hastapenetan zuen estiloa berreskuratu du film horrekin.

KULTURAPILULAK

Urtariletik martxora bitartean, Literatura Solasaldien hainbat saio egingo dituzte

Udal Liburutegiak Literatura Solasaldiekin jarraitzen du buru-belarri. Atzo, eguna, eta herenegun, gaztelarazko taldeak Julio Cortazarren *El final del juego* liburua aztertu zuen, eta datozen egunetan ere izango dira solasaldiak.

Euskarazko solasaldiei dagokionez, martitzenean, hilaren 25ean, Jokin Muñozen *Bizia lo* izango dute berbagai; otsailaren 23an, Raymond Carverren *Zertaz ari garen maitasunez ari garen* aztertuko dute; eta martxoaren 16an, Pello Lizarralderen *Satori*. Euskarazko taldearen ardura Iban Zalduak dauka.

Gaztelarazko solasaldiei dagokionez, otsailaren 16an eta 17an, Kirmen Uriberen *Mientras tanto dame la mano* izango dute berbagai; eta martxoaren 16an eta 17an, Carson Maccullerseren *El corazón es un cazador solitario* aztertuko dute. Ekitaldi guztiak 18:30ean egingo dituzte, eta izenematea zabalik dago liburutegian.

ELKARRIZKETA

IÑAKI RIVIERE/MARGOLARIA

“Industriaren gaineko margolanak gustuko ditut, baina ez nuen hori bakarrik egin gura”

IKER BARANDIARAN

Iñaki Rivierek urte asko darma margotzen. Tailerrean erakusgai jarri ditu lanak, eta gogoz dabil erronka berriekin.

Azkeneko urteotan ez dugu zure berririk izan.

Ospitale zaharrea genuen lokalean asko margotzen nuen, baina 2002ko uztailean Udalak eraikina itxi egin zuen eta lokal barik gelditu nintzen. Margotzeko beste leku bat bilatu behar izan nuen, eta aurkitu ostean konpondu eta egokitu egin nuen.

Horrez gain, aspaldian lantegi baten ere banabil, eta horrek margotzeko denbora kentzen dit. Hala ere, egunero margotzen dut zertxobait. Ez dut ohitura hori inoiz galduko.

Baina jakin badakigu erakusketaren bat egin duzula...

Bai, hemen inguruan ez, baina Granadako Laberinto eta

Madrilgo Rina Bowen galeria-erendako lanak egin ditut. Sasoi baten ez dut erakusketak egiteko ezta lehiaketetan esku hartzeko gogo handirik izan, baina berriro etorri zait horretarako gogo. Apirilean Durangoko Eguda galerian egingo dut erakusketa.

Jende askok zure margolanak industriarekin lotu ditu.

Bai, jende askok gogoratzen ditu lan haiek. Oso gustura ibili nintzen, baina aldatzeko beharra igarri nuen, ez nuen hori bakarrik egin gura. Aldatzeko hainbat saiakera egin nituen. Horietako bat izan zen industriako eraikinak margotu beharrean, elementuak margotzea: prentsak, poleak... Lekuko mutiak deitzen nien nik. Horren ostean, industria paisaien perspektibak desitxuratzen saiatu nintzen ispiluen laguntzarekin.

Azkenean, industria albo batera utzi eta prozesuan dauden arkitekturak edo bukatu barik dauden estrukturak hartu nituen gai-



tzat. Hala nola, autobidearen lane-tako zutabe bat bera bakarrik lanak bukatu artean, eta abar.

Eta orain, berriz, zeharo aldatu duzu motiboa. Iluminazioari ematen diozu garrantzi handien.

Bai, hala da. Aspaldi honetan sailak egiten nabil. Objektu bat aukeratzen dut eta hainbat margolan egiten ditut ideia edo irudi hori garatzeko, betiere iluminazioarekin jolastuta. Gehienetan arkitekturak margotzen ditut, baina argiari esker, itzalak-eta jartzen dizkiet. Berrikuntza moduan, aspaldi honetan paisaia askoz gehiago garatzen dut. Orain arte ez nion horri halako garrantzirik ematen.

Zure lanak erakusgai jartzeko txokoa aurkitu duzu.

Bai, Grupo San Juango 4. zenbakian daukat tailerra, eta erakusleihoan hainbat lan jarri ditut ikusgai. Beste artista batzuen lanak erakusteko aukera ere aztertzen nabil.

EKIN URTE BERRIARI KIROLA EGINEZ

AUKEA Kirol Erakundeak ordutegi berriak eskaintzen ditu ondorengo jardueretan:

SPINNINGA:

Astelehena eta asteazkena: 19:30 - 20:30
Asteartea eta ostirala: 15:00 - 16:00
17:30 - 18:30

AGUAGYMA:

Astelehena eta asteazkena: 20:15 - 21:00
Astelehena eta asteazkena: 12:00 - 12:45
Asteartea eta osteguna: 12:00 - 12:45

ITURRIPEKO GIMNASIA:

Astelehena, asteazkena eta osteguna: 07:45 - 08:45
15:00 - 16:00
18:30 - 19:30

INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA

Musakolako kiroldegia - Elkano kalea 27

Tel.: 943 77 16 77 - Posta-e: aukea@arrasate-mondragon.net

Horiez gain ondorengo ikastaroak eskaintzen jarraitzen dugu:

- Sasoian egoteko gimnasia
- Aerobika
- Muskulazio gela
- Fitnessa
- Igeriketa
- Igeriketa egokitua
- 3. adinekoendako gimnasia
- Gutxitu psikikoendako gimnasia
- Jarduera fisiko-terapeutikoa
- Tonifikazioa
- Bost egunerako programa
- Norbera zaintzea
- Konbinatuak: aerobika + tonifikazioa
aerobika + spinninga
gimnasia + tonifikazioa
gimnasia + spinninga



BOTEPRONTUEN

Beatriz Aldai

ARRASATE BIDAIAK AGENTZIA

XABIER URTZELAI

Beatrizek eta Anek ipiñi euen Arrasate Bidaiak agentzia martxan. Oin dala urtebete egin euen hori, eta ordutik hona ehunka lekutara bieldu daue jentie. Azkeneko bederatzi urtietan beste agentzia batzuetan lanien ibilli eta gero, oin euren agentzia daukie: ordu asko sartu biher dien lanbidie danez, seguru hori eskertzekue dala.

Oin sasoi ona da biajetako?

Biaje bat egitteko edozein sasoi da ona. (Barre)

Egixe haundixe bota dozu, baiñe prezien gainien nebillen.

Bai, oin prezio onien dauketzu biajiek.

Oferta bat?

Jamaikara jueteko zuzeneko hegaldixek daukon agentzia bakarra gare. Eta, biajiez gain, hango egonaldi dana daukogu 800 euro inguru pagaute.

Indonesia baiño hobeto Jamaika.

Bai, oin ez da gomendagarrixe Indonesiara juetie, epidemiak eta holako kontuengaittik, batez be.

Zelan bizi izen dozue hori egoerioi, kliente asko euketzen maretotue egon dan leketan?

Zorionez, bat bera be ez. Eta ez da normala, Indonesia, Thailandia eta holako lekuetara jueteko ofertak eukitten dogu-eta.

Oin momentuen ze eskaketan dau jentiek?

Ezkonbidaietan Costa Rica eta Argentina dauz modan, eta hori eskaketan dau jentiek. Horrez gain, eskietan jueteko Andorrara gabitz biaje asko saltzen. Itxuraz, Huesca inguruen ez dau edur askorik, eta Andorran, barriz, bai.

Aste Santuko oporretarako gomendixorik?

Aurten Aste Santue goix dator, eta elurretara jueteko aukera politte egongo da. Bestela, Kanarietara, Kubara...

Bakaziñotan egon zaren lekurik polittena?

Vietnam eta Australia.

Eta nora ez zitzake juengo?



X.U.

“Ezkonbidaietan jentie Argentinara eta Costa Ricara jueten da, hori eskaketan daue”

Gerrie dauen lekuren batera, Irakera, adibidez.

Ze da zuon laneko gauza txarrena?

Bittartekari asko dauzela, eta kale egitten badaue, guk geuk emun biher dogule aurpegixe.

Eta onena?

Jentie ezaguketan dogule.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Esango neuke inportantie dala jakittie klientie nora bieldu biher dogun, lekue ezagutu. Holan, bada kigu klientiek gure dauena topau biher dauela.

Masokie izen biher dau pertsoniek egun dana bestiendako biajiek preparentan ibiltteko.

“Jamaikara jueteko oferta politte daukogu, eta zuzeneko hegaldixekin, gaiñera”

Ez da masokismo kontue! (Barre) Azken baten, geuk be disfratau egitten dogu bestien biajiek. Neurri baten, geu be jueten gare eurekin...

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Neu Eskoriatzakue naz, eta ez neuke jakingo esaten. Aparkalekue-edo...

Eta ze dauko ona?

Anbiente politte daukon herrixe dala esango neuke.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Umie euki dogunetik gutxi juen gare zinera. *El último Mohicano* da ikusi doten azkena / Umiendako ipuiñek leiduten dot oin / Mana.

NIREBIDAIAHURA/ Pedro Olmo / Leire Eraña

AEBetara / 2004ko urritik abendura arte

Pedrok eta Leirek hiru hilabete egin dituzte Ameriketako Estatu Batuetan. Egin duten bidaia kontatzeko lerro asko behar dira, baina mereziko duela aurreratzen dizuegu. Gainera, txoko honetatik munduko leku asko bisitatu baditugu ere, gutxitan izan gara *Osaba Tom*-en lurretan.

Urrian abiatu ziren Pedro eta Leire AEBetara. Pedrok eman digu bidaiaren berri: “Leirek lagunak zituen han, gaztetan ingelesa ikastera joan zenean egindakoak. Aspalditik geunden hara joateko gonbidatuta, baina dirua behar. Lanean ibili ginen Leire eta biok, eta sos batzuk irabazi genituenean abiatu ginen”. Oregonen zituen Leirek lagunak, baina Arrasateko bikotea hara eta hona ibili zen: “Portlanden hiru aste egin genituen, baina asteburuetan eta baita astean zehar ere gora eta behera ibiltzen ginen. Hainbat lagun egin genituen han, eta eurekin Oregongo barrualdea ezagutzeko aukera izan genuen. Monthood-eko glaziarran *snow*-a eta Hoodriver errekan *kiteboard*-a egin ahal izan genuen. Horrelako kirolak egiteko paradisua da hura”.



“Bidaiatzeko, Portlanden etxea izateak asko lagundu zigun”

Barrualdeaz gain, kostaldean ere ibili ziren: “AEBetako mendebaleko kostaldean asko ibili ginen: Oregon, Kalifornia... Eta, nola ez, surfa egiteko aprobetxatu. Horren harira, marrazoekin ezustekoren bat edo beste izan genuen, eta lehena Oregonen izan nuen. Ilunkara zen, eta lagun batekin surfa egiten nenbela marrazo baten moduko burua ikusi genuen gertu. Zitzu bizian irten ginen handik, eta gero esan ziguten seguruenik itsas lehoi bat izango zela. Geroago Kalifornian gertu-gertu ikusi genituen benetako marrazoak, baina hori aurreragoko utziko dugu”. Oregonen ibili eta gero, Nevada eta Kalifornia ezagutzeko ordua iritsi zen: “Ibili ginen begira zein garraibide zen egokiena, eta trena aukeratu genuen. Asteburuetarako autoa alokatzea ondo zegoen, baina bidaiak luzeetarako egokiagoa zen trena”.

XABIER URTZELAI



Pedro, Oregongo kostalde ederrean ateratako argazkian.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitez, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTEEN AISIALDIA

Alokatutako etxabeak, gazte koadrilek neguan erabiltzen dituzten alternatibak


IKER BARANDIARAN

Lehen, gazteek egun osoa kalean igarotzen zuten. Gaur egun, berriz, ez dira horrenbeste ikusten. Asko tabernetan egoten dira, eta beste askok lokalak alokatzen dituzte. Auzoetan hainbat daude.

Negurekin batera, hotza eta euria heldu da, eta gero eta deserosoagoa da kalean ibiltzea. Arrazoi horregatik, herriko hainbat gazte egun osoan tabernetan ez egoteagatik, etxabeak alokatzen dituzte. Koadrila osoa batu ohi da, edo, bestela, beste lagun talde batekin bat egiten dute alokairua ordaindu ahal izateko.

LOKAL GEHIENAK AUZOETAN

Ezagun da azkeneko urteotan Arrasateko auzoetan hainbat saltoki itxi dituztela. Horregatik, hainbat etxabe hutsik gelditu dira, eta gazte askok horiek alokatzen dituzte. Era berean, jabe batzuk egoera horretaz baliatzen dira. Hain zuzen ere, badakigu gazte koadrila batzuek hilero 450 eta 600 euro ordaintzen dutela alokairua. Kasu gehienetan etxabe horiek azalera handia izaten dute



Jolaslekuetan ere hainbat gazte ibiltzen dira.

eta baita komuna ere. Hala ere, badakigu hainbat kasutan ez dutela garbitasun baldintza horiek betetzen.

Arrasateko gazteen artean joera handia dago koadrilaren topa-

leku bihurtzen diren lokalak alokatzeko. Hala ere, egia da Uarkapeko gaztetxea zabaldu zutenetik ohitura hori apur bat jaitsi dela.

FILMAK IKUSI, PING-PONGEAN ARITU...

Halako lokalak dituzten koadrila batzuegana jo dugu, eta galdetu diegu zertarako erabiltzen dituzten. Euren esanetan, helburu nagusia da koadrila osoa elkartzeko eta eroso egoko leku bat edukitzea. Han, egonean egon, filmak ikusten dituzte, musika entzuten dute, eta ping-pongera edo bestelakoetara jolasten dute, besteak beste.

Horrez gain, gazte koadrila horiek aditzera eman digute

tabernen salneurriak gero eta garestiagoak direla, eta gehienak ikasten dabiltzanez, luxua dela halako gastuak egitea.

Jakin badakigu Erguin aldean hainbat lokal daudela, baita Musakolan eta San Andresen ere. Hala ere, erdialdean badaude batzuk.

Kasu gehienetan ez da halakorik gertatzen, baina horietako asko intsonorizatuta ez daudenez eta gehienak etxebizitzan azpian daudenez, inoiz bizilagun batzuk kexatu egin dira.

Bestalde, beste hainbat gazte, lokalik ez daukatenak eta tabernetan egon gura ez dutenak, jolaslekuetara joaten dira aisialdiari probetxua ateratzera.



Kasu batzuetan gazte koadrilek alokairu garestiak ordaintzen dituzte.

IKER URTZELAI

Gazte koadrilen lokal gehienak auzoetan daude; gehienak saltoki ohiak dira

Lokaleek koadrilen topaleku izatea dute helburu, eta han, filmak ikusi, musika entzun... egiten dute

**Mobiliario
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ZAHARREN ETXETIK

Musakolako erretiratuen elkarte berria San Isidro elizaren atzealdean egingo dute

IKER BARANDIARAN

Musakolako erretiratuek urteak daramatzate egoitza handiagoa eskatzen, ez daukatelako guztiendako leku nahikorik. Azkenean, Udalak aditzera eman du abian dela elkarte berria egokitzeko egitasmoa. San Isidro elizaren atzealdean jarriko dute.

Musakolako erretiratuen elkarteak 545 bazkide ditu, baina lokala oso txikia da. Are gehiago, ikastaroak eta bestelako ekintzak beste elkarte batzuetan egin behar izaten dituzte. Aspaldidanik dute kezka hori, eta Udalari behin eta berriro eskatu diote konponbide bat aurki dezala.

Udalak hainbat batzar egin ditu Musakolako erretiratuekin, eta bi aukera aztertu zituen: bata -atzera bota dute-, San Antolin eskolako eraikin hutsean egitea; eta bestea, San Isidro elizako atzealdea egokitzea. Azken urteotan eliza ondoko lokal horretan gazte txokoa egon da, baina dagoeneko lekuz aldatu dute.



UBANE MADERA

Gipuzkoako Apezpikutzak lokala uzteko hitzarmena sinatu bezain laster, lanak adjudikatzeko prozedura jarriko dute abian.

Lokal hori Gipuzkoako Apezpikutzarena da, eta Udalak eta erakunde horrek hitzarmena sinatugura dute, 10-15 urtean Udalak

lokala erabil dezan. Hori betetzen bada, Udalak erretiratuen elkarte egiteko proiektua onartu beharko du, eta adjudikazio lehia-

keta abian jarriko dute. Udalak uste du lanak aurten hasiko direla. Izan ere, proiektua dagoeneko idatzita dago. LKSk hartu du

Lanak 267.000 euroko aurrekontua izango dute, elkartearen ekipamendua barne

hori egiteko ardura. Lanen aurrekontua 267.000 euro da, ekipamendua barne, eta behin esleipena egin ostean, 5-6 hilabete iraungo dute.

San Isidro elizako atzeko eraikina ez dute askorik aldatuko. Fatxada behintzat ez dute ukituko. Horren ordez, teilatua konponduko dute eta leihoak aldatuko dituzte.

Barrualdea, berriz, hainbat zatitan banatuko dute: tarteko solairua, taberna sukaldearekin eta taberna ondoko gela, hain zuzen ere. Tarteko solairuan aukera izango dute bulegoak jarri zeko edo tarteka ekitaldiren batzuk egiteko. Berogailua ere jarriko dute, jakina.

Bainuetxeen programa abian da; lehenengo txandarako izenematea bukatzeaz dago

I.B.

IMSERSOK abiarazi du bainuetxeetara joateko programa. Gizarte Segurantzako pentsiodunek horretaz baliatzeko eskaerak egin beharko dituzte udaletxean edo IMSERSOra idatzita. Lehenengo txandan esku hartzeko izenematea urtarrilaren 31n bukatuko da.

Programa horretan esku hartzeko ezinbestekoa da Gizarte Segurantzako pentsioduna izatea. Horretarako derrigorrekia da erretirata egotea edo ezintasunen bat izatea. Horrez gain, alarguntzarengatik edo bestelako arrazoiengatik pentsiodunak direnek, berriz, halaberrez 60 urtetik gora izan beharko dituzte bainuetxeen programan parte hartu ahal izateko.

Lehenengo txandan, hau da, otsailetik abuztura bitartean joan gura dutenek urtarrilaren 31ra arte dute eskaera egiteko aukera. Eskerak egiteko bi aukera daude: bata, Arrasateko udaletxean egitea, eta bestea, IMSERSOra bidaltzea (14005 posta-kutxa, 28080 Madril).

Interesatuak horretarako eginda dagoen inprimaki jakin bat hartu eta bete behar egin beharko dute. Inprimakiaz gain,

agiri jakin batzuk eraman edo bidali beharko dituzte: Nortasun Agiriaren fotokopia, hilean jasotzen duten pentsioaren zenbateko zehatza, Gizarte Segurantzako afiliatu zenbakia eta medikuaren txostena, hain zuzen ere.


PREMIEN ARABERA, LEHENTASUNA

Udaletxeko Gizarte eta Ongizate Sailak du horren ardura. Sail horrek tramitatzen dizkio IMSERSORI jasotako eskaerak.

IMSERSOK jasotako eskaeren artean lehentasuna ematen die osasun arazoengatik bainuetxeetara joateko premia handien duten interesatuei. Horrez gain, kontuan hartzen dute eskatzaileen egoera ekonomikoa eta baita duten adina ere. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta puntuazio altuagoa emango diote.

Horiek guztiak kontuan hartuta, eskatzaile batzuei aukeratu dituzten bainuetxeetara joateko erraztasun handiagoak emango dizkiete. Betiere, ohikoak diren baino salneurri dezente merkeagoetan, jakina.

Programa horren bigarren txanda irailtik abuztura bitartekoa izango da. Horretarako, maiatzaren 16ra arte dute eskaerak egiteko epea.



ARRASATE PRESS

Erretiratuendako aukera polita da bainuetxeetako programan esku hartzea.

LABUR

Toki Argi elkarteak Parisera bidaiari egingo du maiatzeara

Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkarteak lagunak Parisera bidaiari egingo dute maiatzaren 8tik 19ra bitartean.

Elkarte horretako lagunek izango dute lehentasuna eta bi autobus bete gura dituzte. Hori lortzen ez badute, bazkideak ez direnak ere joateko aukera izango dute. Interesatuak bulegora jo beharko dituzte astelehen, eguazten edo eguazteko goizetan.

80 urtetik gorakoek omenaldia egingo diete eguenean

Eguenean, hilaren 27an, Urtarrilako erretiratuen elkarteak, urtero egin ohi den moduan, omenaldia egingo die 80 urtetik gorako bazkideei. Besteak beste, bazkideak izango dute 14:00etan, eta zuzeneko ustekabe atseginak egongo direla.

Interesatuak elkarteak bulegora jo beharko dute izen emateko edo 943 77 18 22 telefono zenbakira deialdi beharko dute 18:00ak eta 19:00ak bitartean.

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zela deitzen da argazkiko eraikina?
Arrastoa: orain dela gutxi bota egin zuten.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Scottex komuneko papera
4 paper-biribilki

1€ 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

J. ANTONIA ERIZrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, J. Antonia!
Galderen erantzun zuzena:
Tagor.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko baserri auzoetako bideak (VII)

'ARRASATEKO BASERRI...' / G. ARZELUS

Bedoña auzotik abiatu-ko gara oraingo honetan baserri bideen gaineko gainbegiratuarekin jarraitzeko; Udala auzoraino iritsiko gara:

“Bedoñara zihoazen bideei haria hartuaz, esan San Andres baselizatik irteten zuen bidea Solozar baserri ondotik pasatzen zela. Bide hura erabat galdu da. Dirudienez, Solozar etxea oso garrantzitsua izan zen orduan (XVI-XVII.mendeetan batik bat) leihatila eta arkuek adierazten digutenez. Gaur egun erabat isolatua dago saihesbidea eta bide berria direla eta. Gainera, nahiko egoera txarrean aurkitzen da, kanpoaldetik behintzat.

Esan bezala San Andresetik hasi eta Solozar aurretik igarotzen zen, gero Azube-azpi baserriara heltzeko. Puntu horretan, bi aukera zeuden; bat Azubegain aldera jarraitzea eta bestea Urikinatarantz (Kurtze Txiki barruko harizti batean zegoen iturriak negualdean ur epela ematen zuen; udan, berriz, freskoa). Lehenengoak bertan, hots Azubegainean, amaitzen zuen, eta besteak, alderantziz, San



Bedoña auzotik abiatuta, makina bat baserri bideren gaineko gainbegiratua egin dezakegu.

Josepetik zetorren bidearekin bat egiten zuen.

Beste bide batek, berriz, Etxaburu eta Iramendi ingurutik pasatu eta Mukieten (Bedoña) zuen amaiera.

Guztiak ere zorbideak ziren eta normalean oinez, astoan edo

Hildakoak jaisten zituztenean, zorbideak gurutze-bide bihurtzen ziren

burdian jaisten ziren herrira. Bidea pagoz, haritzez eta, batez ere, artez inguratuta zegoen. Bestalde, Estradá (jausita dago) eta Otamendi baserriak, nahiz eta Bedoña auzotik erabat hurbil egon, San Andres auzoari dagozkie; horrexegatik, baserri

horietako hildakoak Arrasatera jaisten zituzten. Bedoñakoak auzoan bertan ehorzten dira. Hildakoak jaisten zituztenean, zorbide horiek kurtzebide bilakatzen ziren.

Bedoñabe Estrada (San Andres, 1899): Bedoñabe izenarekin bi baserri agertzen dira, biak San Andresen: Atxa (Bedoñabe lehenengoa) eta Takolo (Bedoñabe hirugarrena). Lehenengoa, 1962an bota zuten etxeak egiteko eta besteak oraindik zutik dirau. Hori dela eta, zaila da jakitea, 1898an Arrasateko Udalak egin zuen auzobideen zerrendan aipatzen zen *Bedoñabe estrada* zein baserriri zegokion. Ziurrenik, Arrasateko beste bide asko bezalaxe desagertuta egongo da.

Beheko Birie (Udala): Udaltik Besaideraino doan bideetarikoa bat da, agian ezagunena. Elizaren atzetik irteten da eta lehenengoko bidekurutzean beherantz jotzen du. Ez du inolako galbiderik seinalatuta baitago. Bidearen ezaugarrienetarikoa bat haren landaretza da; arteak, pinuak, erratzak eta beste zuhaitz mota batzuk ikus baitaitezke. Oixako bidea jarraitzen du, handik aurrera bidezidor bihurtzen delarik”.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005ko urtarrilaren 21a / 136. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Gripeak eragindako gaixo ugari dabil anbulatorioan

UBANE MADERA

Aramaioko anbulatorioan ez dute aspertzeko astirik. Gripearekin lotutako 50 bat kasu izan dituzte oraingo astean. Bestalde, meningitisarekin lotutako txertoak jartzen dabilta.

Gripearen sasoia da orain, eta hori Aramaion ere igartzen da. Javier España medikuak kontatu digunez, oraingo astean, eguneko hamar bat aramaiorrek egin diote bisita, gripearekin lotutako gaixotasunen eraginez. Gehienbat arnas aparatuekin lotutako infekzioak ikusi dituela esan digu. Gripearri dagokionez, berriz, hamar kasu diagnostikatu dituela. Halaber, esan digu kalkuluaren arabera, datorren astean hasiko dela jaisten gaixo kopurua; edozelan ere, gaineratu digu beste bi aste beharko direla gaixotasuna menderatzen hasteko. Horrenbestez, bien bitartean komeni da zaintzea eta hotza saihestea ahal den neurrian.



Anbulatorioko itxarongelan herritar dezente elkartu da egunotan.

MENINGITISA

Bestalde, azkenaldian horrenbeste kezka eragin duen meningitisa dela-eta, Aramaion ere txertoak jartzen dabilta. Kontsultan bertan, eskolara ez doazen gazte-

ei eta Mendixolako gazteei jartzen ibili dira. San Martin Eskolan, berriz, seigarren mailakoei jarri diete. Izan ere, meningitisaren kontrako txertoa 11-20 urte bitarteko gazteendakoa da.



Gaizki aparkatutako autoen arazoak bere horretan segitzen du

Abisuak abisu, oraindik ere gaizki aparkatutako ibilgailu asko ikus daitezke Aramaio kaleetan. Mertxe Mondragon alkateak berretsi egin du joan den astean esandakoa, alegia, egoera konpondu ezean, neurriak hartuko dituztela. Zenbait herritarrek, berriz, diote arau hori betetzeko lehenengo beharrezkoa litzatekeela aparkalekuak behar bezala mugatzea. /U.M.

Kalitatezko sagardoa dute Iturrietako kupeletan

U.M.

Hamar mila litro sagardo egin dituzte Iturrietan aurtengo denboraldirako. Barikuan egin zuten txotx, Igor Gonzalez de Galdeano txirrindulariak lagunduta. Aurtengo sagardoa sei gradu ditu, gorputz handia eta hori-berdexka kolorea. Kalitatezko sagardoa ei dute Iturrietako kupeletan.

Iaz baino dezente sagardo gehiago egin dute aurtun Arraga auzoko sagardotegian. Izan ere, iaz 5.000-6.000 litro egin zituzten eta aurtun bikoiztu egin dute kopuru hori. Urtero moduan, Ara-

maioko sagarrekin batera, Bergara, Arrasate... eta ingurukoak erosi dituzte likido preziatua egiteko. Guztira, sei sagar klase erabili dituzte: *Goikoetxe*, *Urtebete*, *Resilla*, *Bost kanto*, *Txalaka* eta *Mokote*. Horien guztien zukua-rekin, gorputz handiko sagardoa lortu dute Iturrietan, sei gradu ditu eta hori-berde kolorea.

Joan den barikuan probatu zuten, 100 bat lagunek. Liberty Seguros taldeko txirrindulari Igor Gonzalez de Galdeano izan zuten gonbidatu berezia. Behin baino gehiagotan edan zuen sagardoa eta oso ona dagoela adierazi zuen. Horrenbestez, orain hara joan eta probatu besterik ez dago.


Astean behin jarduten du lanean arkitekto berriak

U.M.

Arrasatear batek hartu du udaletxeko arkitekto postua datozen sei hilabeteotarako. Astean behin egoten da Aramaion, aholkulari moduan.

Eraikinak berak izan dituen aldaketez gainera, udaletxeko langileen artean ere izan da aldaketarik azkenaldian. Horren harira, joan den abenduan udal lantaldeko aparejadore berri Haritz Maillo aurkeztu genizuen.

Oraingo honetan, arkitektoaren txanda da, hura ere berria da-eta. Izan ere, joan den abendua ezkerro Unai Aiastui arrasatearra ari da arkitekto lanetan Aramaio Udalean. Behin-behinerako lanpostua da, sei hilerako. Gero, ikusi egin behar. Bien bitartean, Aramaion izango da, martitzeno, oro har aholkularitza lanak betetzen. Kontatu digun moduan, batez ere lanen gaineko txostenak egitea da bere lana; halaber, herritarrak ere joan dakizkioke, kontsulta egitera.



Hirigintza Sailaren batzarra hasi baino lehen harrapatu dugu Asier Aiastui.

ELKARRIZKETA Julian Untzueta · Arbel kooperatibako presidente-ordea


“Erabaki genuen hemen egitea guk gura genuen pentsua; pentsu osasuntsuak nahi genituen”

Bake epaile izateaz gain, Arbel kooperatibako sortzaileetako bat da Julian Untzueta. Gainera, urte luzez eta gaur egun ere bai, kooperatibako presidente-ordea ere bada; Arbelen gaineko jakin-mina ase digu:

Noiz sortu zenuten Arbel? Zela?

1980an. Lehenagotik zetorren halako mugimendu bat: nire aitak eta haren lagun batzuek bazeukaten halako biltegi bat edo zerbait ipintzeko ideia. Baina orduan ez zuten inongo laguntasunik eta azkenean ez zuten ezer egin. Gero, gazteak hasi ginen ea zerbait sortzen genuen. Lehenengo lau elkartu ginen, gero abeltzainei esaten hasi ginen, eta sei elkartu ginen. Azkenean, zazpi-zortzi ginen. Eta orduan konturatu ginen egokiena herri guztiari deitzea izango zela eta haiekin batzar bat egitea. Eta hala egin genuen. Izarra elkartean batzartu ginen. **Zenbat lagun?**

Lehenengo esan beharra dago batzarrak egin genuerako aurrezki kutxarekin lanean genbiltzala. Lehen, Vital barik, bi kutxa zeuden: Caja Municipal eta Caja Provincial. Gu munizipalarekin genbiltzan laguntzak eta lotzen. Gero, neu diputatu nengoen orduan eta banekien Diputazioetik laguntzak eduki behar genituela. Hala, 70 bat lagun elkartu ginen. Guztiaren berri eman genien eta galdetu genien: Nork gura du hemen bazkide sartu? Bazkide izateko, bakoitzak 5.000 pezeta ipini behar zituen, fondo galdurako. Hasi ginen izenak hartzen eta 67-68k eman zuten izena. **Guztiak ganaduzaleak?** Bai, bai. Herriko ganaduzaleak, handiagoak edo txikiagoak,



baina, ganaduzaleak; bi behi eta behi bat zeukanak ere eman zuten izena. Geroago, hasieran horren konbentziturak ez zeuden atzetik sartu ziren. 98 izatera iritsi ginen. **Lehenagotik zeneukaten pen-**

tsututa pentsuekin jardutea? Bai. Hasieran proposatu zen bestelako biltegi handiagoetatik pentsuak ekarri eta hemen banaketa egitea; baina, gero, horrenbeste bazkide elkartu ginenean erabaki genuen

produktuak ekarri eta hemen egitea nahasketak guk gura genuen pentsua lortzeko. Pentsu osasuntsuak nahi genituen, ez manipulaturakoak. Makineria ekarri genuen eta hala hasi ginen. Harrezkero egin dira zenbait hobekuntza; esaterako, orain dela hiru urte-edo hamar milioiko inbertsioa egin genuen. Era berean, hasieran, langile bakarra hartu genuen (oraindik ere lanean dihardu). Denborarekin emakume bat hartu genuen, egun erdiz, kontabilitatea eramateko (oraindik ere lanean dihardu); urteak geroago beste mutil bat hartu genuen, eta lan asko dugun sasoirako (negu partean) beste pertsona bat hartzen dugu.

Nora saltzen duzue pentsua? Hasieran produkzio osoa herrian saltzen zen. Baina ikustean hemen pentsu ona egiten dugula eta prezioak ere onak direla, jendea hasi zen Arexabaletatik, Bergaratik-eta etortzen. Hala, kamioia erosi genuen, banaketa egiteko. Denborarekin, herrian asko gutxitu da salmenta, gehienek ganadua kendu dute-eta. Orain, Mañeri aldera saltzen dugu asko, Barazarrera, Abadiñora... Durango partera arte sartzen gara. Eta Bergaratik-eta bertakoak etortzen dira gehienbat. **Herriko produkzioa jaitsi arren, bazkide kopuru bera zarete?** Bai, bazkide askok oso pentsu gutxi gastatzen dugu. Badaude ezer gastatzen ez duten bazkideak, baina bazkide izaten jarraitzen dutenak. **Orokorrean zer saltzen duzue?** Ganadu, untxi, oilo, txakurrendako... pentsuak, eta orokorrean baserrirako edozein produktu (sardak, aitzurrak...).

“Diputazioari beti eman izan diogu irabazien zati bat; dirulaguntzak ematearen truke”

“Izan ez balitz Diputazioaren laguntzengatik, ezin izango genuke kooperatiba sortu”



Jon Agirre
ekartzearen alde

Joan den barikuan, Jon Agirreraren aldeko herri ekimena aurkeztu zuten. Malagako kartzelako erizaindegian dagoen presoak Euskal Herriratzea eskatzeko antolatutako herri ekimena. Talde horretan, presoaren senide eta lagunekin batera, bestelako herritarrak ere badira, tartean, EAJko eta EAko zinegotziak. Besteak beste, zera esan zuten: “Jonek bere osasun egoerak eskatzen duen zaintza behar du”. /A.G.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperen deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59-23

OHARRAK

DOMEKAKO ZINEMA

Doraemon y el Secreto del Laberinto filma emango dute, 17:00etan.

ARATUSTEAK

Otsaileko lehenengo asteburuarekin batera iritsiko dira aurten aratusteak. Eta urtero moduan, mozorro-lehiaketa izango da Aramaion. Zapatuan, otsailaren 5ean, ospatuko dituzte aratusteak. 17:30ean aterako da kalejira kiroldegitik, plazaraino, eta 18:00etan banatuko dituzte lehiaketako sariak. Gero, txokolatea emango dute eta eguraldiak uzten badu, dantzaldia izango da plazan.

OSOKO BILKURA

Gaiak zehaztu barik dituzten arren, datorren eguaztenean ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak, 18:00etan.

ESKOLAKOAK MUSEORA

Urtarrileko ekintzen artean, San Martin Eskolakoak liburutegiaren erabilpena hobeto ezagutzen ibili dira oraingo astean. Datorren asteko barikuan, berriz, Lehen Hezkuntzakoak Eskoriatzako Museo Eskolara joango dira bisita egitera.

ERRETRATUZAHARRA

Errekastoan
oinak
freskatzen

On Justino Uribesalgo apaiz aretxabaletarraren argazki artxibotik lortu dugu oraingo asterako argazki zaharra.

Gure berriemaileek uste dute Arantzazuko Iturrigorrin dagoela aterata eta 50eko edo 60ko hamarkadako dela. Argazkian agertzen direnak ikusita, badirudi ibilaldiren bat egiteko elkartu zirela eta freskatzeko eta argazkia ateratzeko geldionetxo bat egin zutela, errekastoan. Era berean, Arrasatekoek gainera, bestelako herrietako pertsonak agertzen dira argazkian, hortaz, litekeena da Arantzazura joateko ibilaldiren bateko partaide izatea.

Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita: Konsuelo Aldaiondo (donostiarra); haren besoa sorbaldan duena Begoña Aranburu da, eta bien atzean dagoen mutikoa Felix Gonzalez *Felix Txiki*. Atzeko aldetik jarraituz, txapelarekin dagoen emakumea Maritxu Azurmendi da (Ormaizte-gikoa); haren ondokoa (buruan zapi modukoa duena) ezezaguna da eta



emakumearen ondoko gizonezkoa Modesto Garcia. Gero, beltzez jantzita dagoen andrazkoa Carmen Balerdi da; loredun soinekoa duena Sebastiana Camio oiartzuarra; burua zapiarekin estalita duena ezezaguna da eta izkina-izkinan dagoena Manolita Bolunburu

donostiarra. Neskatilak falta zaizkigu; hala, bada, ezkerrekoa Nekane Laboa da (Pasaiakoa); txapela duena ezezaguna da, baina hari heltzen dagoen gizonezkoa Jose Azurmendi ormaiztegiarra da; zapia duen neskatila Karmele Laboa da (pasaiatarra).

Bukatzeko, harri gainean eserita dagoen emakumea Amparo Balerdi da.

Argazkia: On Justino Uribesalgo.
Informazioa: Balerdi ahizpak, Felix Gonzalez *Felix Txiki* eta Pilar Lasa.
Urtea: 1950-60ko hamarkadak.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Deba ibaia
garbitzeko
lanak

Ondoan dauden bi argazkiak dira Zerrajera eta Laubideko plaza batzen zituzten zubienak. Argazki zaharreko zuba, baina, orain dagoena baino gorago zegoen. Orain dela bederatzi urte hasi zituzten Euskal Herriko beste ibaiekin batera Deba ibaia garbitzeko lanak. Eskoriatzatik hasi eta Debaraino egin zituzten garbiketa lanak. 75 metro garbitzen zituzten egunero.



≈ 1994 Euriteek eraginda, goiko argazkia atera zutenean Deba ibaia gainezka egin zuen hainbat lekutan.



2005 Ibaia garbituta, uholdeek eragiten zituzten ondorioak txikitzea zen helburuetako bat. Aretxabaletan 23,5 tona zabor poltsa batu zituzten.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



BERGARA-MONDRA

Bergararren eta arrasatearren arteko derbia Goitbn


Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

BERGARA-MONDRA
Laguntzaileak:
Ametz, Basati, Iamai Kafe Antzokia, Irati, Iturriotz, Itzala, Monte,
Okorotegi eta Pol Pol.

Zapatuan, urtarrilaren 22an
Agorrosin futbol zelaian, 16:00ean.
20:00ean GOITBn

Ederotasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILE APAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT